

## ILARGI JAINKOSA

Silvia Jiménez

*Oñati, 16 urte*

Gauak, gizakiak ez dakien eta sinestu nahi ez dituen gauza asko ezkututzen ditu bere hodeiezko kortinen atzean. Espazioa, ilargia eta planeten ikerketa baino lehen, gizakiak zerua jainko bote-retsuen jauregia zela defendatzen zuen eta bakarrik ez zutela zeru sabai osoa kontrolatzen baizik baita gizonen patua ere, horregatik beraien ome-nez monumentu handiak sortuko ziren, baina denborarekin gizonak jainko eta erlijio berriak asmatu eta sinetsi ditu datu historikoak fedearen gainetik jarriz. Hala ere, batzuk oraindik ere, zeinu baten zai gaude agerkunde baten esperoan, gure begiradak zerura zuzentzen dira gure jainkoek birzuzen-duko gaituzte, haiengan sinetsi besterik ez dauka-  
gu, hauen egia, hitz sagaratueta aurkitzen da:

“Gauean ilargia deitzen den sorgin bat agertzen da zeruan, pottolo-pottoloa eta zilarrezko ilearekin algara beldurgarriez hornitzen du gaua, bere zaldizko gurdian, ibilera amaigabetsuan, alde batetik bestera ibiltzen da.

Lamia bat da ilargia, zeruko itsas ederrean, izarretan bainatuz betikotasunaren kresala zilarrezko izpien bidez amodiozko gutunetan bidaltzen dio gaueko izara horren azpian aurkitzen den edonori, zeruko olatuetan plisti-plasta berarekin jolas dadin. Mila koloredunetako munduetan barrena bere

arima garraiatuz, bere belarria, olerki goxoz lotaraziz, bere haizezko eskuez bere gorputza laztanduz, bere azaleko milimetro guztiak. Eta zetazko soinekoekin jantziko ditu gizonak eta lainoetan bere ohea egingo, aingeruen kabien artean, itsasoak eta zeruak bat egiten duten tokian. Eta gaua arnastuko dute, beraien biriketan kulunkatuko da izarren urrezko hautsak eraginda. Koloretako haizean barrena, mila usain goxo beraien gorputzak estaltzen, taupada bakoitza, amodioari kilima bat, uni-bertsoaren liluratasunean maitasuna suari so. Eztizko ilargia, paperezko ilargia, ilargi betea, hain gertu baina hala ere urrun, berarekin egoteko irrika sortuz, bere musuak bukaerarik gabeko amets bihurtuz, gauean etzanda, margolari baten marrazki garden bat bezala. Egunen batean, itsasotik irtendako lamia bat da ilargia, bere bularreko bihotza, aire forma duen dantzari erotikoa, bere suge mugimenduekin erakartzen zaituen pairaezinezko perfekzioaren jainkosa. Horrela, aurpegi zuriko eta begi beltzetako gazteak menderatzen du guztia han goitik, zeruko bere tronutik. Maitagarriek, emakumezko gorpu lirain eta tximeleten hego koloretsuekin ematen diote jaten eta edaten, bizitzaren goporretik. Inondik inora aho hilkor batek dastatu ez duena. Han daude, gure jainkosa horren jauregiaren inguruan jakintasunaren iturriak, harpe batetik erneak, gu argitzeko isuriko direnak, egia gure begietatik lurraren itzalean agertzean.

Guretzat aurrezten den batasun zerutarra, izarretan dago idatzia, suzko lumekin, gure ilargi jain-

kosaren eskutik. Horrela gu hiltzean, gure arimak zero urdinaren ehunen gainean taiutuko dira, betiko bizitzara, urrezko hariekin lotuta.

Eta ilargiarekin jostatuko gara mende eta mendeetan zehar, eta izarretan zamalkatzean, mila unibertsoan barrena gorde-gordeka jolasten edo ilargi-amatxok uzten badigu, gure biriketako aireaz planeta berriak puztu milioika izaki berrientzat etxeak egiteko, eta betikotasuna den jai horretan dantzatu-dantzatu eta dantzatu jainkoek jotzen duten musikaren erritmora planetak gora eta gorago eraginez, alde batetik bestera, koloretako globoak bailira. Eta jaia bukatzean, ilargi amatxoren inguruan etzanez, isiltasunak eta lasaitasunak estaliko gaitu, bake andereak itxiko ditu gure begiak eta txalo bakar batez amets-goxoak ekarraraziko.

Ilargia tristetuko da Ekia azaltzean. Negar egitean, bere aurpegiko margo zuria irristatuko da eguna heldu denaren seinale. Mendien atzean, unibertsoen artean ezkutatuko da hurrengo gaura arte, oilarraren kukurrukua izango da bere seaska kanta eta gurasoen “ondo lo egin”a bere iratzargailua. Hurrengo gauean, bere seme eta alabatxo maiteak bere aldamenara deituko ditu bere kanta liluragarriekin txundituko eta betirako bizitza eskainiko die bere bularren goxotasunean.

Itsaso guztien bihotza da ilargia, minez hedatzen delarik, olatuen gainetik gaua heltzean bere seme-alaben beldurrak hazten baitira milaka distira bailira, horrela amatxok, lasaituko ditu gure arimen saminak eta egunen batean deitzen gaituenean,

bidai luze bat egin beharko dugu bera dagoen tokiraino, izarren bidea jarraituz. Baina noiz lortuko dugu gure desira? Noiz esango du gure amaxok nahikoa dela, berarekin elkartzeko ordua dela? Beharbada, nazkatzen garenean, agian gure arimak duen deabruak barrutik guztiz erretzen gaituenean. Dena dela, gure ordua denean, ez dugu dudarik izango iritsi dela, gure bizitzaren erlojua, momentu horretantxe geratuko da eta ez da inoiz gehiago martxan jarriko, ordu horretantxe hasiko baita denbora berria betirako; erlojurik behar ez dugun denbora: "Inoiz ez" a.

Eta zeruko bazter batean prestatuko dute gure bataioa, gure gorputzaren heriotzaren ondoren etorriko dena. Gure biziaren amaigabetasunaren hasiera izango da hori, gure amaren eskutik, ilargia: HILEN ARGIA."